

Larunbata, 2009ko azaroak 7 - 09:29 Agenda

Hasiera **BerriaTB** Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak  

**Paperekoa** Iragarki laburrak **Hitza**

Harian | Iritzia | Kirola | **Agenda** | Plaza

Berria.info » Papereko Edizioa » Agenda



### Albisterik...

**IRAKURRIENAK**

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 'Egunkaria libre!' aldarrikatu dute musikariek Donostian
- 2 Bahitzaileek atzo Somaliara eraman zituzten hiru arrantzaleak berriro 'Alakrana'-n daude
- 3 Dimitri de Fauw txirindulariak bere buruaz bertze egin du
- 4 Laffage itota hil zutela baieztatu dute auzitegioko medikuek
- 5 Abertzaletasun instituzionala indartzeko ituna proposatu du Hamaikabatek

2006-09-16

# Erromatarren itzulera

Erromatarren zibilizazioa eta Iruña-Veleia aztarnategia ezagutaraziko dituzte asteburuan

## ERREDAKZIOA

Donostia

non zer

Erromatarrek Iruña-Veleia hirira itzuliko dira asteburuan, Ludi Veleienses 2006 jardunaldiak esker. Arabako T responde eta Biloda herrien artean dagoen aztarnategi erromatarrean antzeppen historikoak antolatu dituzte bosgarren urtez, eta

aztarnategira hurbiltzen direnek erromatar zibilizazioa gertutik ezagutzeko aukera izango dute. *Ludi Veleienses* izeneko emankizunek erromatarren garaiko bizimodua erakustea eta Euskal Herriko aztarnategi esanguratsuenetako bat ezagutaraztea dute helburu. Azken urteetako arrakastaren bidetik, 6.500 lagun inguru biltzea espero dute antolatzaileek. Goizean zehar izango dira ikusgai erromatarren garaiko antzeppen eta jolasak, 11:00etatik 14:00ak bitartean.

Iruña-Veleia aztarnategiko zuzendari Eliseo Gilek zehaztu zuenez, azkenaldian aztarnategian egin dituzten aurkikuntzek garrantzi berezia izango dute aurtengo ekitaldian. Izan ere, III. mendeko marrazki eta idatziak aurkitu zituzten iaz arkeologoen, eta aurtun bertan euskarazko hitz zaharrenak ere bai. Aurkikuntza horien inguruko xehetasunak azaroan emango dituztela esan zuen Eliseo Gilek, eta omenaldia egingo diete asteburuan.

**ANTZEPPENAK ETA JOKOAK.** Ludi Veleienses topaketon helburua erromatar zibilizazioa ezagutaraztea denez, prestatu dituzten antzeppenak eta jolasak «Hollywoodeko filmek emandako iruditik desberdina» izango da, aztarnategiko zuzendariaren hitzetan: «irudi okerra eman digute».

Hala, Arabako, Kataluniako, Hungariako eta Erresuma Batuko aktoreek garaiko legionarioak, emaginak eta gladiadoreak irudikatuko dituzte, eta zuzenean antzeztuko dituzte garaiko zenbait pasadizo. Besteak beste, desfile militarrik, gladiadoreen arteko borrokak eta erromatar legioen entrenamenduak. Cohors I Gallica eta Roma Antigua izango dira antzeppenak egingo dituzten taldeetako bi.


### NON ZER

**Topaketa.** 'Ludi Veleienses 2006'.

**Lekua.** Iruña-Veleia aztarnategiaren inguruan.

**Egunak.** Gaur eta bihar.

**Ordua.** 11:00-14:00.

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa  

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.  
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140  
Telefona: 943 304 030 / Faxa: 943 590 122  
berria@berria.info - www.berria.info  
Lege Informazioa



### Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa